

[LAN- ESKAINTZA]

KOORDINATZAILEA

EuskarAbentura Elkartean

Eskaintza:

Kontratua: 2026ko urtarrilean hasteko (*gutxienez 2 urtez lan egiteko prest egon beharko da*).

Lanaldia: %60a lehen hilabeteak (16.409€ gordin/urtean) eta uztailetik aurrera %100ean (27.349€ gordin/urtean).

Lan baldintzak: Ordutegia eta lantokia elkartearekin adosteko aukera dago.

Lanaren deskribapena:

EuskarAbentura Elkartek, "EuskarAbentura Espedizioa" euskal herria oinez zeharkatzen duen espedizio euskalduna antolatzen du urtero. Helburu argia du: gazteen artean euskararen erabilera sustatzea. Esperientzia positiboetan oinarrituta -abentura bat Euskal Herrian zehar- hiztun gazteen aktibazioa bilatzen du eta harreman sare euskaldunak sortzea; lurralde eta egoera soziolinguistiko ezberdinetako gazteen sarea: Hego eta Ipar euskal herria, Nafarroa eta euskal diaspora.

Eginbeharrak:

- Koordinazio orokorra:

- EuskarAbentura elkarteko zuzendaritza batzordean parte hartu eta bertako kideekin etengabeko koordinazioan lan egitea (bilerak, jarraipena...)
- Elkartearen barruan dauden batzorde ezberdinen jarraipena eta antolaketa.
- "EuskarAbentura Espedizioa" aurrera ateratzeko kudeaketa orokorra.
- Elkartearen egunerokotasunaren kudeaketa.

- Zabalkundea:

- Sustapen kanpainiaren ardura (*proiektua ezagutaraztea Euskal Herriko hezkuntza zentro ezberdinetan*).
- Jardunaldi eta ekimen ezberdinetan parte hartzea.

- Komunikazioa:

- Posta elektronikoa, telefono eta sare sozialen ardura eta kudeaketa.
- Komunikabideekin harremana (kolaborazioak, hitzarmenak, prentsaurrekoak, publizitatearen kudeaketa...)

- Administrazio lanak:

- Finantziario iturrien kudeaketa (diru-iturri berriak lortu, diru-laguntzen eskaera eta zuriketak...)
- Erakunde kolaboratzaileekin koordinazioa eta harremana.
- Fakturazioa, zordun eta hartzekodunen kontrola eramatea.

Beharrezkoa:

- Euskara menperatzea: bai idatziz, bai ahozkoan menperatzea (*Gutxienez C1 maila*).

- Autoa eta B gidabaimena (*kilometrajea eta bidesariak elkarteak ordainduko ditu*).

- Euskal Herrian zehar mugitzeko aukera.

- Pertsona dinamikoa, autonomoa, komunikatzeko erraztasuna eta talde lanean aritzeko gaitasuna edukitzea.

- Uztailaren 1etik 31ra espedizioan egon beharko da momentu oro.

Baloratuko da:

- Euskararen inguruko eragileak ezagutzea.
- Euskara, euskal kultura edo aisialdi elkarteren bateko kidea izatea.
- Aisialdiko begirale edo koordinatzaile esperientzia izatea.
- Administrazio eta kudeaketa lanetan esperientzia.
- Proiektuak bultzatzen dituen (proiektuan bilatzen diren) helburuekin bat etortzea.
- Hizkuntzak baloratuko dira (gaztelania, frantsesa eta ingelesa).

Hautagaitzak bidaltzeko epea: 2025eko azaroaren 16ra arte

Aukeratutako pertsona 2026ko urtarrilean lanean hasteko prest egon behar da.